

DBH2 NATur: "Materia nonahi, birziklatzea ere bai" Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Materiaren ezaugarriei buruzko oinarizko kontzeptuen arteko erlazioak hainbat bitartekoren bidez adierazi, emandako euskarrietatik materiaren konposizioari, egiturari eta propietateei buruzko informazioa jasoz.</p>	<p>1.1. Teoria atomiko molekularra erabiliz, substantzia motak (puru bakunak, puru konposatuak eta nahaste homogeenak eta heterogeenak) identifikatu ditu.</p> <p>1.2. Emandako euskarrietan agertzen diren materiaren agregazio-egoeren aldaketak interpretatu eta arrazoitu ditu.</p> <p>1.3. Materiarekin lotutako propietateak (masa, bolumena, dentsitatea) erlazionatu ditu arrazoi zientifikoak emanez.</p> <p>1.4. Gorputz baten flotabilitatea, gorputzaren beraren eta likidoaren dentsitatearekin erlazionatu eta azaldu du.</p>
<p>2. Ikerketaren helburuari dagokion hasierako hipotesia baieztatzeko edota ukatzeko esperientziak egin, eta zientifikoki argudiatu prozesua zein ondorioak</p>	<p>2.1. Adierazi du ikerketaren helburua.</p> <p>2.2. Ikerketaren hipotesia aukeratu du.</p> <p>2.3. Bideratu ditu ikerketa honekin lotutako pausuak eta emaitzak.</p> <p>2.4. Zientifikoki justifikatu ditu ateratako ondorioak.</p>
<p>3. Materiaren erabilerak sortutako kutsaduraren eragileak identifikatu, eta dakartzan ondorioak adierazi, hainbat iturrietatik informazioa jasoz.</p>	<p>3.1. Kutsaduraren eragileak identifikatu ditu, eta dakartzan ondorioak adierazi ditu.</p>
<p>4. Materiaren erabilerak sortzen dituen arazoak balioetsi eta ingurumenarekiko egokiak diren proposamenak egin eta esplikatuz.</p>	<p>4.1. Proposamenak egin ditu kutsaduraren efektuak sortzen dituen arazoak hobetzeko arrazoi zientifikoak emanez (eragile eta ondorioak erlazionatuz).</p>